

## PRENTSA OHARRA



## NOTA DE PRENSA

## ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK. EKINTZA SOLIDARIOA 2019

Aurten ere, dagoeneko zortzigarrena, Donostiako ITZURUN Erraldoien eta Buruhandien konpartsak "Ekimen erraldoia" ekintza solidarioa antolatu du.

Helburu solidarioko ekintza honen bidez kamisetak saltzen dira, eta gure erraldoien eta buruhandien irudia daramate, irudi iraunkorretako bat jada gure Aste Nagusian.

Urtero, irabazi asmorik gabeko elkarte bati ematen zaio kamiseta solidario honen salmentatik lortutako dirua.

#ERRALDOIAIZAN lemapean, BEROA elkarteak izango da aurten gure konpartsaren ahaleginaren onuraduna.

Dakizueenez gero, solidaritate ekintza bat da, Itzurun konpartsak egiten duena Super Amara-ren babes eta laguntza bereziarekin.

### BEROA ELKARTEA

Aurreko edizioetan, Ekimen Erraldoi honen bidez bildutako dirua elkarte hauek jaso zuten: Aspanogi, Gure Nahia, Juneren Hegoak, Dravet eta Pausoka. 1.000 kamiseta jarriko dira salgai, 10€-tan bakoitza, Super Amara-k dituen lau supermerkatuetan. Kamisetaren irudia Iñigo Garvik sortua da.



Beroak, 2019. urte honetan salmentaren onuradun izango den elkarteak, besteren artean, xede hauetarako lan egiten du: babesgabe edo arriskuan dauden haurrak eta nerabeak babesteko baliabideak hedatzea, sentsibilizazio sozialeko eta haur eta nerabe horiek hartuko dituzten familiak erakartzeko programa bat aurrera eramanez, eta babesgabe dauden haurrei eta nerabeei laguntzeko baliabide horretan inplikaturako pertsonak eta familiak gero eta gehiago izan daitezten apustu eginez, kontuan hartuta haur eta nerabe horiek egonkortasun emozionala behar dutela, baita beren bizitzan ere, eta familia batek bakarrik eman diezaike horrelakorik; merezi duten aukera bat, alegia.

Horretarako, hainbat programa eta proiektu aurrera eramaten dituzte, familia hartzaileen errealitateaz eta edozein modalitatetan familia batek hartu dituen adingabeen errealitateaz ere arduratzen ahalegintzeko. Programa horiek eragile, profesional, instituzio eta organismo desberdinen lanarekin osatzen dira, zerbitzuen eta baliabideen bitartez harrera bakoitzera batik batik laguntza bideratzeko.

### KAMISETAK NON EROSI

Berritasun gisa, aurten, eta hiriko eragile desberdinen laguntzari esker, kamisetaren aurkezpen ekitaldi bat egingo du konpartsak, datorren abuztuaren 3an, SUHILTZAILEEN egoitza zaharrean (Easo 43).

Ekitaldia 19.30ean hasiko da eta kamisetak azken urte hauetan egin duen ibilbidearen bideo bat proiektatu eta 2019an onuradun izandako elkarteak aurkeztuko da bertan. Ekitaldia amaituta ekingo zaio kamiseten salmentari.

Bestalde, abuztuaren 5etik aurrera erosi ahal izango dira Super Amara-k Donostian dituen saltokietan (Amara, Loiolako Erriberak, Antigua eta Erdialdea) irekita dauden ordutegian.



IFK-CIF Q20005411

Dakizueenez gero, solidaritate ekintza bat da, Itzurun konpartsak egiten duena Super Amara-ren babes eta laguntza bereziarekin.

### KONPARTSA ANTIGUARA JOANGO DA BISITAN KONTXA PASEALEKUTIK

Berritasun gisa, abuztuaren 12an, 18:00etatik aurrera, erraldoiek eta buruhandiek Kontxa pasealekuko ibilbidea osorik egingo dute Antigua auzora iristeko. Gau horretan auzoko Merkatu Zaharrean hartuko dute atseden; hurrengo egunean Matia kaletik irten eta Sert plazara iritsiko dira, eta geraldiki bat egingo dute bertan nahi duten haur guztiek haiekin batera argazkiak atera ahal izateko.

Abuztuaren 14an, konpartsak Amara auzotik egingo du irteera; Loiolako Erriberetatik hasita Olaeta plazaraino.

## APARTEKO GONBIDATUAK

Abuztuaren 15ean, Irungo erraldoien konpartsari harrera egingo dio Itzurun konpartsak.

Irungo erraldoien konpartsa 1947an sortu zen, eta 8 irudi huez osatuta dago:

ALKATEA  
BASERRITAR BIKOTEA  
TURKIAR BIKOTEA  
AFRIKAR BIKOTEA

Osorik zaharberritu dute duela gutxi, eta bere aurreneko bisitaldia izango da beste hiri batera. Hala, ekitaldi horretan senidetze bat sortuko da Irungo Atsegiña eta Donostiako Itzurun konpartsen artean. Egun horretan, gainera, gehigarri bat eskainiko da: Irungo Musika Bandak kontzertu bat emango du Boulevard zumardian, eta joko duten aurreneko pieza bi konpartsek dantzatuko dute 19.30ean.



IFK-CIF Q20005411

Hau da egun horretako **programa** erraldoia:

- 12:30** Donostiako eta Irungo erraldoien konpartsak hiriko Erdialdetik. Irteera Zuloaga plazatik
- 15:00 - 18:00** Donostiako eta Irungo erraldoien erakustaldia Gipuzkoa plazan (Aldundia). Zatoz gogokoen duzun erraldoiarekin batera argazki bat ateratzera!
- 18:00** Donostiako eta Irungo erraldoien konpartsak hiriko Erdialdetik. Irteera Gipuzkoa plazatik
- 19:30** Donostiako eta Irungo konpartsek emango diote hasiera Irungo Hiriko Musika Bandaren kontzertuari.
- 19:40** Donostiako eta Irungo erraldoien konpartsak Alde Zaharretik.